



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk uste du Bonoredekor kanpainaren diseinuak diskriminazioa sortzen duela eta lehia askearen eta kontsumitzaileen interesaren aurkakoa dela

CECOBIren ekimena Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du azken 4 urteotan, gutxienez

Bilbo, 2017ko apirilaren 19a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) txosten bat egin du 2016ko Bonoredekor kanpainari buruz. Horren arabera, CECOBIn merkatarien elkarteak sustatua eta Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) finantzatua izan zen kanpaina horrek lehia askearen eta kontsumitzaileen interesaren aurkako diskriminazioa sortu zuen.

2012tik CECOBIn bultzatutako kanpaina batzuk (altzarien merkataritza sustatzekoak) finantzatu ditu BFAk. 2016an BFAk 640.000 euro eman dizkio CECOBIn, diru-laguntza zuzenen gisan, merkataritza sustatzeko. Diru-kopuru horren 43.000 euro, gutxienez, Bonoredekor kanpainara bideratu dira, eta kanpainak 4,7 milioi euro inguruko salmenta-bolumena sortu du.

LEAk azpimarratu du diru-laguntza hori legeak eskatzen duen lehiarik gabe eman zela eta gauza bera adierazi zuen Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 2013an eta 2014an.

Kanpainaren nondik norakoa

Banku-entitate bakar bateko kutxazainetan 5 euroko bono bana erosiz gero, salneurriaren %15eko beherapena lortu ahal zuten kontsumitzaileek, baina bakarrik altzari zehatz batzuk erosten bazituzten eta atxikitako dendetan (bakarrik atxiki ahal ziren altzariak saltzen dituzten ETEEak). Beste banku-entitate baten txartela zuten bezeroek bonoa erosi ahal zuten bonoaren %18ko komisioa ordainduz gero.

Kanpainan parte hartu zuten dendariak ordaindu behar zituzten bezeroei aplikatutako beherapenak, baina CECOBIn bazkide ez zirenek ordaintzen zutenaren erdia ordaintzen zuten bazkideek kanpaina parte hartzearen.



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Dendari guztiek CECOBiri adierazi behar zizkioten kanpainaren barruan zeuden altzariak, hornitzaileen nortasuna eta salneurriak, erosketa-fakturak eman behar zizkiotelako.

Iritzia:

Aipatutako nondik norakoek ondoko diskriminazioak sortzen ditu:

- enpresa-ereduari buruzkoa, sektoreko enpresa guztiek ezin zutelako parte hartu,
- elkarte-kidea izateari buruzkoa, CECOBiren bazkide ez direnek bazkideek halako bi ordaintzen dutelako (200€ eta 100€, hurrenez hurren),
- banku-entitate zehatz baten txartela izateari buruzkoa, txartel hori ez duten bezeroek %18 gutxiagoko diru-laguntza jasotzen dutelako, txartela dutenekin konparatuz.

LEAK gogorarazten du epai askok antzeko kanpainak baliogabetu dituztela ETEEa izatearen eskakizuna betetzen ez dutenak bazterteagatik. Kasu honetan, gainera, eskatzen da jarduera nagusia altzariak saltzearena izatea eta dendak Bizkaian egotea.

Eskakizun horiek ez dute laguntzen kanpainaren helburua lortzera —altzarien merkataritza sustatzea, hain zuzen— eta lehia askearen eta kontsumitzaileen interesaren aurkako diskriminazioa sortzen dute.

Halaber, kanpainak lehiari buruzko arazo gehiago sortzen ditu, zeren eta:

- merkataritza-politika bakarria inposatzen dielako enpresa parte-hartzaileei,
- isilpeko informazioa CECOBiri bidaltzera behartzen dituelako.

Dendak hornitzaileen nortasuna eta salneurriak CECOBiri bidali behar izatearen eskakizuna arau-haustea izan daiteke, baita merkataritza-politikak bateratzearena ere (enpresek %15 baino gehiagoko beherapenik ezin dute egin, beherapen horiek ezin dizkiete gehitu beste sustapen batzuei, eta abar).

Txostenaren ondorioetan LEAK nabarmendu du BFAk jarrera neutrala izan behar duela merkatuetan eta bere parte-hartze bakarria operatzaileen arteko lehia askearen eta berdintasunaren baldintzak ezartzea dela. CECOBiren eta BFAREN parte-hartzea ez dute justifikatzen merkaturan akats bat egoteak edo



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

ekonomiko ez den xede bat lortu nahi izateak, horiek baitira justifikatzen duten bakarrak, Lehiaren Defentsari buruzko Legeari jarraiki.

CECOBIk LEAri emandako datuen arabera, Bonoredekor kanpainak 9.200€-ko mozkina, gutxienez, sortu dio elkarte horri.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoetarako dagokienez.

Txostena (castellano):

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/197_INFORME_BONOREDEKOR_2016_web_es.pdf